

**2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021**

**Akta zenbakia:** 15/2021  
**Bilera eguna:** 2021-09-23  
**Bilera mota:** ohikoa  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordua:** 08:00- 08:15  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 15/2021  
**Fecha:** 23-09-2021  
**Tipo de reunión:** ordinaria  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 08:00- 08:15  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**  
Jorge Segurado Iriondo

**Zinegotziak:**  
Mikel Pagola Tolosa  
Luke Goñi Martínez  
Ainara de Miguel Berasategui

**Idazkaria:**  
Xabier de la Mota Vázquez

**Etorri ezina adierazi dute:**  
Agurtzane Mercader Ubillos

**Reunidos:**

**Alcalde:**  
Jorge Segurado Iriondo

**Concejales:**  
Mikel Pagola Tolosa  
Luke Goñi Martínez  
Ainara de Miguel Berasategui

**Secretario:**  
Xabier de la Mota Vázquez

**Excusan su ausencia:**  
Agurtzane Mercader Ubillos

Urnietan, 2021eko irailaren 23an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 08:00tan, Jorge Segurado Iriondo alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

En la villa de Urnieta a 23 de septiembre de 2021, siendo las 08:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Jorge Segurado Iriondo, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**GAI ZERRENDA**

- 1.- 2021eko irailaren 17ko bileraren akta onartzea.
- 2.- Kiroldegiko hornikuntza lizitatzeko espedientearen onarpena. 2021-URN-006 (2021ZHOR0001)
- 3.-“Babiloniako eremuan eskola ekipamendurako partzelari lotuta urbanizazioa kontratatzeke espedienteari hasiera ematea (ESP. 2021-URN-007)

**ORDEN DEL DÍA**

- 1.- Aprobar el acta de la sesión de 17 de septiembre de 2021.
- 2.- Aprobación del expediente de licitación de suministro para el polideportivo. 2021-URN-006 (2021ZHOR0001)
- 3.- Incoación del expediente para la contratación de “Urbanización asociada a la parcela de equipamiento escolar en el ámbito de Babiloni” (EXP. 2021-URN-007)

**2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021**

4.- San Juan 23an igogailu bat jartzeko obra handiko baimena. 2021HOMA0009

4.- Licencia de obra mayor para la instalación de un ascensor en San Juan nº23. 2021HOMA0009

5.- Yurramendi 7an igogailu bat jartzeko obra handiko baimena. 2021HOMA0011

5.- Licencia de obra mayor para la instalación de un ascensor en Yurramendi nº7. 2021HOMA0011

6.- Belandi kalea 52an igogailu bat jartzeko obra handiko baimena. 2021HOMA0013

6.- Licencia de obra mayor para la instalación de un ascensor en Belandi nº52. 2021HOMA0013

7.- Etxeberri 5eko erdisotoaren erreformarako obra handiko baimena. 2021HOMA0014

7.- Licencia de obra mayor para la reforma del local situado en Etxeberri nº5. 2021HOMA0014

8.-Drogomenpekotasunaren errehabilitaziorako dirulaguntza eskaera onartzeko proposamena. 2021GORO0019

8.- Propuesta para aprobar una solicitud de ayuda económica para rehabilitación de drogodependencia. 2021GORO0019

9- Bestelakoak.

9- Otros.

\*\*\*\*\*

1.- 2021eko irailaren 17ko bileraren akta onartzea.

1.- Aprobar el acta de la sesión de 17 de septiembre de 2021.

2021eko irailaren 17ko akta irakurri ondoren, ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak bertaratutakoen aho batez honako hau.

Tras la lectura del acta de la sesión del 17 de septiembre de 2021 y realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los asistentes adopta el siguiente

**ERABAKI DU**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-** 2021eko irailaren 17ko akta onartzea.

**Primero.-** Aprobar el acta del 17 de septiembre de 2021.

**2.- Kiroldegiko hornikuntza lizitatzeko espedientearen onarpena. 2021-URN-006 (2021ZHOR0001)**

**2.- Aprobación del expediente de licitación de suministro para el polideportivo. 2021-URN-006 (2021ZHOR0001)**

**AURREKARIAK**

**ANTECEDENTES**

Sustapen departamentuak "Urnietako udal kiroldegirako kirol ekipamenduaren hornidurari (1. Lotea: tonifikazio- eta kardio-makina, 2. Lotea: jantzi-altzariak, 3. Lotea: kirol-ekipamendua eta zoladurak, 4. Lotea: sareko elektronikako ekipamendua (2021-URN-007)" kontratatzeke

El Departamento de Promoción ha iniciado el expediente para la contratación del "Suministro de equipamiento para el polideportivo municipal de Urnieta (Lote 1: máquinas de tonificación y cardio, Lote 2: mobiliario de vestuario, Lote 3: equipamiento deportivos y pavimentos, Lote 4:

## 2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021

espedienteari hasiera eman dio eta memoria justifikagarria eta kontratazio hau arautuko duten oinarri teknikoak idatzi ditu.

Era berean sail sustatzailearekin koordinatuta, Administrazio Baldintza Berezien Plegua eta Baldintza Teknikoen Agiria prestatu dira, modu honetan kontratazio espedienteak osatuz.

Udal-Idazkariak legezketasun aldeko-txostena eman du, eta Kontuhartzaileak fiskalizaziorako txostena eta kreditua dagoelako ziurtagiria.

#### ARAUDI APLIKAGARRIA

Legedi aplikagarria. Izaera administratiboko espediente arrunta daukagu, eta horren esleipena prozedura ireki bidez egin nahi da eta araudi hau zaio aplikagarri: 7/1985 Legearen 89 artikulua, Toki Araubideko Oinarri buruzkoa, eta 2017ko SPKLko 116 eta 117 artikulua, espedientearen prestakuntzaren inguruan, eta esleipen prozeduraren inguruan, 2017ko SPKLko 156 eta 158 artikuluek xedatutakoari jarraitu beharko zaio, prozedura irekiaren inguruan.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 4  
Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1

Kontra: 0  
Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Herritargo Batzorde Informatzaileak 2021eko irailaren 16an egindako irizpena, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

#### ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Onartzea kontratazio espedienteak eta, bestetik, esleipen prozedurari HASIERA EMATEA, prozedura ireki bidez kalitate-prezio erlazio onenean, hainbat esleipen irizpiderekin 1.

equipamiento electrónico de red (EXP. 2021-URN-007)” y ha elaborado la memoria justificativa y los pliegos técnicos.

Asimismo, se ha redactado el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el de Prescripciones Técnicas, en coordinación con el Departamento promotor, completándose de este modo el expediente de contratación.

El Secretario de la Corporación ha emitido su informe favorable de legalidad, y la interventora el informe de fiscalización de Intervención y el certificado de existencia de crédito.

#### NORMATIVA APLICABLE

Estamos ante el expediente ordinario de un contrato de naturaleza administrativa, cuya adjudicación se pretende por el procedimiento abierto y al que le es de aplicación la siguiente normativa: art. 89 de la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local y artículos 116 y 117, de la LCSP 2017, en cuanto a la preparación del expediente, y en cuanto al procedimiento de adjudicación habrá que estar a lo dispuesto en los artículos 156 a 158 de la LCSP, relativo al procedimiento abierto.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 4  
Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1

En contra: 0  
Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía de 16 de septiembre de 2021, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

#### ACUERDO:

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación de la “Suministro de equipamiento para el polideportivo municipal de Urnieta (Lote 1: máquinas de tonificación y cardio, Lote 2:

## 2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021

2. eta 3. Loteetan eta irizpide bakarrarekin eta izapidetze arrunt bidez, "Urnietako udal kiroldegirako kirol ekipamenduaren hornidurari (1. Lotea: tonifikazio- eta kardio-makina, 2. Lotea: jantzi-altzariak, 3. Lotea: kirol-ekipamendua eta zoladurak, 4. Lotea: sareko elektronikako ekipamendua (2021-URN-007)" kontratatzeko.

**Bigarrena.-** Urteko 577.498,19 eurotako gastua BAIMENTZEA (gehi BEZA), aurrekontuaren 1 0420.625.342.00.99 partidaren kargura 2021eko ekitaldikoa.

**Hirugarrena.-** "Urnietako udal kiroldegirako kirol ekipamenduaren hornidurari (1. Lotea: tonifikazio- eta kardio-makina, 2. Lotea: jantzi-altzariak, 3. Lotea: kirol-ekipamendua eta zoladurak, 4. Lotea: sareko elektronikako ekipamendua (2021-URN-007)" prozedura ireki bidez kalitate-prezio erlazio onenean, hainbat esleipen irizpiderekin 1., 2. Eta 3. Loteetan eta irizpide bakarrarekin 4. Lotean eta izapidetze arrunt bidez kontratatzeko arautuko duten Oinarri Teknikoen eta Administrazio Baldintza Berezien Pleguak onartzea.

**Laugarrena.-** Kontratazioaren iragarkia kontratzailearen profilean argitaratzea, interesdunek 30 egun naturaleko epearen barruan beren proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

**Bosgarrena.-** Kontratazioaren profilean, memoria justifikagarria, baliabide ezaren txostena eta kontratazio hau arautuko duten oinarriak argitaratzea.

**3.-"Babiloniako eremuan eskola ekipamendurako partzelari lotuta urbanizazioa kontratatzeako espedienteari hasiera ematea (ESP. 2021-URN-007)**

De Miguel andreak adierazi du ildo honetatik hartzen diren erabaki guztien alde bozkatuko dutela.

#### Aurrekariak:

Aurreikusita dago 2021eko irailaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak "Babiloniako eremuan eskola ekipamendurako partzelari lotuta urbanizazioa

mobiliario de vestuario, Lote 3: equipamiento deportivos y pavimentos, Lote 4: equipamiento electrónico de red) (EXP. 2021-URN-007) por procedimiento abierto, en base a la mejor relación calidad-precio, con varios criterios de adjudicación en el Lote 1, 2 y 3 y con un único criterio de adjudicación en el Lote 4 y Lote 4 y tramitación ordinaria, convocando su licitación.

**Segundo.-** AUTORIZAR un gasto de 577.498,19 € con cargo a la partida 1 0420.625.342.00.99 2021.

**Tercero.-** Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato de "Suministro de equipamiento para el polideportivo municipal de Urnieta (Lote 1: máquinas de tonificación y cardio, Lote 2: mobiliario de vestuario, Lote 3: equipamiento deportivos y pavimentos, Lote 4: equipamiento electrónico de red)" (EXP. 2021-URN-007)", por procedimiento abierto, en base a la mejor relación calidad-precio, con varios criterios de adjudicación en el Lote1, lote 2 y lote 3 y con un único criterio de adjudicación en el Lote 4.

**Cuarto.-** Publicar en el Perfil de contratante el anuncio de licitación, para que durante el plazo de 30 días naturales los interesados puedan presentar las proposiciones que estimen pertinentes.

**Quinto.-** Publicar la memoria justificativa y los pliegos de contratación en el Perfil de Contratante.

**3.- Incoación del expediente para la contratación de "Urbanización asociada a la parcela de equipamiento escolar en el ámbito de Babiloni" (EXP. 2021-URN-007)**

La Sra. De Miguel manifiesta que botarán a favor de toda decisión en este ámbito.

#### Antecedentes:

El proyecto básico y de ejecución para la "Urbanización asociada a la parcela de equipamiento escolar en el ámbito de Babiloni" (EXP. 2021-URN-007] está previsto que sea

## 2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021

(ESP. 2021-URN-007)” egiteko oinarritzko eta egikaritze-proiektua” onartzea.

Ondoren, aurreikusten da udal arkitektoak proiektu horren erreplanteoa burutu zuen.

Espedientean barneratuta daude kontratuaren beharraren txostena/justifikazio memoria, kontratua gauzatzeko baliabide ezaren txostena, kreditua dagoelako ziurtagiria, Klausula Administratibo Partikularren baldintza-agiria, eta Proiektua, Klausula Teknikoen baldintza-agiria dakarrenak. Halaber, Udal-Idazkariak legezkotasun aldeko-txostena eman du, eta Kontuhartzaileak fiskalizaziorako txostena. Modu honetan kontratazio espedientea osatu da, proiektuaren erreplanteoa bakarrik falta delarik.

#### **Araudi aplikagarria:**

Izaera administratiboko espediente arrunta daukagu, eta horren esleipena prozedura ireki sinplifikatuz egin nahi da eta araudi hau zaio aplikagarri: 2017ko SPKLko 116 eta 117 artikulua, espedientearen prestakuntzaren inguruan, eta esleipen prozeduraren inguruan, 2017ko SPKLko 159 artikulua xedatutakoari jarraitu beharko zaio, prozedura ireki sinplifikatuaren inguruan.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 4  
Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1

Kontra: 0  
Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntza Batzorde Informatzaileak 2021eko irailaren 20an egindako irizpena, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

#### **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** ONARTZEA kontratazio espedientea, alde batetik eta, bestetik, esleipen prozedurari HASIERA EMAN, modu ohikoan izapidetuta eta prozedura ireki sinplifikatuaren

aprobado por acuerdo de la Junta de Gobierno Local el 17 de septiembre de 2021.

Posteriormente, está previsto que la arquitecta municipal realice el replanteo del proyecto.

Se encuentran incorporados al expediente el informe de necesidad del contrato/memoria justificativa, el informe de insuficiencia de medios, el certificado de existencia de crédito, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Proyecto, que incluye el Pliego de Prescripciones Técnicas. Asimismo, el Secretario de la Corporación ha emitido su informe favorable de legalidad, y la interventora el informe de fiscalización, completándose de este modo el expediente de contratación a falta del replanteo del proyecto.

#### **Normativa aplicable:**

Estamos ante el expediente ordinario de un contrato de naturaleza administrativa, cuya adjudicación se pretende por el procedimiento abierto simplificado y al que le es de aplicación la siguiente normativa: artículos 116 y 117, de la LCSP 2017, en cuanto a la preparación del expediente, y en cuanto al procedimiento de adjudicación habrá que estar a lo dispuesto en el artículo 159 de la LCSP, relativo al procedimiento abierto simplificado.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 4  
Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1

En contra: 0  
Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Organización de 20 de septiembre de 2021, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

#### **ACUERDO:**

**Primero.** APROBAR el expediente para la contratación, por una parte, y por otra, DISPONER la apertura del procedimiento de adjudicación, a tramitar de forma ordinaria y en

**2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021**

bidez erabilia, ondorengo helburua duen kontratuarena:

“Babiloniako eremuan eskola-ekipamendurako partzelari lotuta urbanizazioa (ESP. 2021-URN-007)”

**Bigarrena.**- 611.587,46 eurotako gastua BAIMENTZEA, hurrengo aurrekontuaren partiden kargura, 2021ko ekitaldikoak:

1 0300.601.151.00.01

**Hirugarrena.**- “Babiloniako eremuan eskola-ekipamendurako partzelari lotuta urbanizazioa (ESP. 2021-URN-007)”prozedura sinplifikatu irekiaren bidez kalitate-prezio erlazio onenean, esleipen irizpide bakarrarekin eta izapidetze arrunt bidez kontratazeko arautuko duten Administrazio Baldintza Berezien Pleguak onartzea.

**Laugarrena.**- Kontratazioaren iragarkia kontratazailearen profilean argitaratzea, interesdunek 20 egun naturaleko epearen barruan beren proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

**Bosgarrena.**- Kontratazailearen profilean, memoria justifikagarria, obra proiektua, eta kontratazio hau arautuko duten oinarriak argitaratzea.

**Seigarrena.**- Akordio hau Idazkaritza, Hirigintza eta Kontu-Hartzailatza sailei jakinaraztea dagokion ondorioetarako.

**4.- San Juan 23an igogailu bat jartzeko obra handiko baimena. 2021HOMA0009**

Kontuan hartuta HAPNren 77. artikuluko xedapenak betetzen direla, eta Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 24.4 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 4  
Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1

procedimiento abierto simplificado, del contrato del siguiente objeto:

“Urbanización asociada a la parcela de equipamiento escolar en el ámbito de Babiloni” (EXP. 2021-URN-007)”

**Segundo.** AUTORIZAR un gasto de 611.587,46 euros, con cargo a las siguientes partidas del presupuesto del ejercicio 2021:

1 0300.601.151.00.01

**Tercero.**- Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato de “Urbanización asociada a la parcela de equipamiento escolar en el ámbito de Babiloni” (EXP. 2021-URN-007)”, por procedimiento abierto simplificado, en base a la mejor relación calidad-precio, con un único criterio de adjudicación y tramitación ordinaria.

**Cuarto.** - Publicar en el Perfil de contratante el anuncio de licitación, para que durante el plazo de 20 días naturales los interesados puedan presentar las proposiciones que estimen pertinentes.

**Quinto.** - Publicar la memoria justificativa, el Proyecto de obras y los pliegos de contratación en el Perfil de Contratante.

**Sexto.**- Trasladar este acuerdo al departamento de Secretaria, Urbanismo e Intervención a los efectos oportunos

**4.- Licencia de obra mayor para la instalación de un ascensor en San Juan nº23. 2021HOMA0009**

Teniendo en cuenta que se cumplen las disposiciones del PGOU en su artículo 77, y teniendo en cuenta lo establecido Real Decreto Legislativo 7/2015 de 30 de octubre en el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Suelo y Rehabilitación Urbana, en el artículo 24.4.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 4  
Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1



**2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021**

Kontra: 0  
Abstentzioa: 0

En contra: 0  
Abstención: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Lurralde Batzorde Informatzaileak 2021eko irailaren 13an egindako irizpena, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Territorio de 13 de septiembre de 2021, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ERABAKI DU:**

**ACUERDO:**

**Lehenengoa:**

**Primero:**

San Juan kaleko 23. zenbakiko jabekideei baimena ematea igogailu bat jartzeko, 117.131,93 euroko aurrekontuarekin.

Conceder a la Comunidad de Propietarios de San Juan 23 licencia de instalación de un ascensor, por un presupuesto de 117.131,93 euros.

**Bigarrena:**

**Segundo:**

**BALDINTZA BEREZIAK**

Irisgarritasunari buruzko 20/1997 Legearen eta lege hori garatzeko arau teknikoen praktikagarritasunaren irizpideen arabera, igogailuaren ateak 80 cm-ko pasabide librea izan beharko du.

**CONDICIONES PARTICULARES**

La puerta de acceso a la cabina del ascensor según los criterios de practicabilidad establecidos en la Ley 20/1997 de Accesibilidad y sus normas técnicas de desarrollo, deberá ser de 80cm de paso libre.

Igogailuaren eraikuntza dela-eta eraikigarritasunaren igoera ez da finkatuta geratuko.

El incremento de la edificabilidad debido a la construcción del ascensor, no quedará consolidada.

Espaloiaren behin betiko forma, urbanizazioaren materialak eta hiri-instalazioetan izango diren eraginak udal zerbitzu teknikoekin adostu beharko dira.

La forma definitiva de la acera, materiales de la urbanización y afecciones a las instalaciones urbanas se deberán consensuar con los servicios técnicos municipales.

Obra gehienez ere 6 hilabetetan hasi beharko da baimenaren jakinarazpena jasotzen denetik eta urte 1ean bukatu beharko da.

El plazo de inicio de la obra será como máximo de 6 meses desde la recepción de la notificación de la licencia, y de 1 año para la finalización de la misma.

**Obrak hasi baino lehen:**

**Antes del comienzo de la obra:**

- Obra zuzendaritza teknikoa izendatu beharko da (arkitektoa eta arkitekto teknikoa).

- Deberá nombrar Director de Obras a Técnico competente (Arquitecto y Aparejador).

**Obrak bukatu eta gero:**

**Al finalizar las obras:**

- Obra Amaierako Ziurtagiria aurkeztuko du, obra zuzendariak sinatua eta dagokion elkargoak onetsia.

- Presentará el Certificado Fin de Obra firmado por el directo de la obra y visado por su Colegio correspondiente.

- Sortutako hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzeko, hondakinak eta eraikuntza materialak sortzen dituen pertsonak amaierako txostena

- A fin de acreditar la correcta gestión de los residuos generados, la persona productora de los residuos y materiales de construcción deberá aportar un informa final, de acuerdo al

**2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021**

ekarri beharko du, 112/2012 dekretuko III. eranskinarekin bat etorritz. Txosten hau derrigorrez aurkeztu behar izango da bermea itzultzeko.

anexo III del Decreto 112/2012.

Será necesario aportar este informe, para que pueda procederse a la devolución de la fianza.

**Hirugarrena:**

HONDAKINAK

- Espresuki debekatzen da obrako materialak edo zakarrak zuzenean zolan uztea, masak eta mortairuak prestatzea etab.

- Debekatuta dago obretako zakarrak baimendu gabeko zabortegetian uztea.

- 112/2012 dekretuak araututako obra izanik, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen, eraispenean sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko helburuarekin, hondakin horien kudeaketaren % 120ko bermea jarri beharko da, hau da, 554,64 euro.

**Laugarrena:**

BALDINTZA OROKORRAK

- Baimen honek bakar-bakarrik balio du eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan aurrekontu eta guzti adierazitako obrak egiteko.

- Espazio publiko urbanizatueta eta eraikinetara iristeko eta horiek erabiltzeko ahalmen urritasuna duten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko eta bereizkeria saihesteko oinarritzko baldintzak onartzen dituen apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa bete beharko dute, baita irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/97 Legean eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan xedatutakoa ere, hiri inguruen, gune publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen.

**Bostgarrena:**

SEGURTASUNEN NEURRIAK

**Tercero:**

RESIDUOS

- Se prohíbe expresamente depositar materiales de obra o escombros, directamente en el pavimento, así como preparar masas, morteros, etc.

- Se prohíbe depositar los escombros procedentes de las obras en vertederos no autorizados.

- Al tratarse de una obra regulada por el Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, con el fin de garantizar la adecuada gestión de los residuos generados en la demolición se deberá imponer una fianza del 120% del coste de la gestión de dichos residuos, es decir, 554,64 euros.

**Cuarto:**

CONDICIONES GENERALES

- La presente licencia ampara exclusivamente a las obras que se presupuestan y relacionan en la documentación presentada y correspondiente a la solicitud realizada.

- Deberán cumplir lo establecido en el R.D. 505/2007 de 20 de abril por el que se aprueban las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y edificaciones, así como lo establecido en la Ley 20/97 de 4 de Diciembre para la promoción de la accesibilidad y lo establecido en el Decreto 68/2000 de 11 de abril por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

**Quinto:**

MEDIDAS DE SEGURIDAD



## 2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021

- Obra egiterakoan oinezkoen segurtasuna kontuan hartuko da, behar izanez gero hesiak jarri.

- Obrek iraun bitartean, indarrean dauden segurtasun neurriak hartuko dira, bertan lanean ari diren langileak eta oinezkoak babesteko. Beraz, bide publikoa beharrezko neurri osagarriekin babestuko da (oholtza aldamiotako pasabide-moduluak, hesiak, baliza zintak, sareak, biserak eta abar), oinezkoen segurtasuna eta zirkulazioa bermatzeko moduan, fatxadako hondakinak irits daitezkeen eremu osoan. Neurri hauek gutxienez 1,5 METRO BETE utzi beharko dute oinezkoak pasa daitezzen.

#### Seigarrena:

##### ZARATAK

Lanen ordutegiari dagokionez, zaraten eta bibrazioen igorpena arautzen duen Udal ordenantzak ezartzen duena bete beharko da, ondorioz, lanak ezingo dira 22:00etatik 08:00etara eta jaiegunetan egun osoan zehar burutu. Etxe barruko lanetarako, neurri zuzentzaile egokiak hartuko dira zarata edo bibrazioengatik auzokoentzat sor daitezkeen eragozpenak gutxitzeko.

#### Zazpigarrena:

Baldin eta obra egiteko beharrezkoa bada laguntza bitartekoak jartzea, al nola, aldamiotako, edukiontziak edo horrelakoak, eta horiek bide publikora begira edo bide publikoa okupatuz jartzen badira Ibi Publikoaren Okupaziorako Baimena eskatu beharko du eta udaltzainekin harremanetan jarri beharko da honen kokapena zehazteko. Kasu horretan hondakinak tolba bidez bideratu beharko dira.

#### Zortzigarrena:

Lizentzia, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango da eta beharrezkoak diren gainontzeko lizentzia eta baimena administratiboak kontuan izan beharko dira.

- Al efectuar la obra, se tendrá en cuenta la seguridad de las posibles viandantes, colocando vallas si fuera necesario.

- Se adoptará, mientras duren las obras, las vigentes medidas de seguridad para la protección de operarios que en ellas intervienen, así como de los viandantes. En éste sentido se protegerá la vía pública mediante los medios auxiliares que fueran precisos (módulos de paso de andamios con

entablados, vallados, cintas balizadoras, redes, viseras, etc.) que garanticen la seguridad del tránsito peatonal y rodado en todo el tramo susceptible de recibir desprendimientos desde la fachada. Estos deberán permitir un paso de peatones de una anchura mínima de 1,5 METROS.

#### Sexto:

##### RUIDOS

En cuanto al horario de los trabajos, se deberá cumplir lo establecido en la Ordenanza Municipal de Emisión de Ruidos y Vibraciones, por lo que los trabajos no podrán ejecutarse entre las 22 y las 8 horas, y los días festivos en su totalidad. Para los trabajos en el interior de las viviendas se adoptarán las medidas correctoras oportunas para minimizar las molestias que por ruido y/o vibraciones se puedan generar en el vecindario.

#### Septimo:

Si para la ejecución de la obra fuera preciso el empleo de medios auxiliares como andamios, contenedor o cualquier otro elemento auxiliar y los mismos están orientados u ocupando la vía pública, deberá solicitar Licencia de Ocupación de Vía Pública y ponerse en contacto con la Policía Municipal para concretar la ubicación. En ese caso los residuos tendría que sacarlos a través de un tubo.

#### Octavo:

La licencia se concede a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros y de las demás licencias y autorizaciones administrativas que sean procedentes.

**2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021**

**Bederatzigarrena:**

Baimen honek obraren lekuan egon beharko du, honek irauten duen bitartean, eta Udaltzaingoaren edo Udal Zerbitzu Teknikoen eskura jarriko da, hauek eskatzen dutenean.

**Hamargarrena:**

Kontu-hartzailletza zerbitzuak dagokion zerga likida dezala, hala badagokio.

**5.- Yurramendi 7an igogailu bat jartzeko obra handiko baimena. 2021HOMA0011**

Kontuan hartuta HAPNren xedapenak betetzen direla.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 4

Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Lurralde Batzorde Informatzaileak 2021eko irailaren 13an egindako irizpena, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

**Noveno:**

Indicar que esta autorización deberá estar en el lugar de emplazamiento de la obra, durante el transcurso de la misma, a disposición de la Policía Local o de los Servicios Técnicos Municipales cuando éstos la requieran.

**Décimo:**

Que por los servicios de Intervención, en su caso, se proceda a la liquidación del tributo que corresponda.

**5.- Licencia de obra mayor para la instalación de un ascensor en Yurramendi nº7. 2021HOMA0011**

Teniendo en cuenta que se cumplen las disposiciones del PGOU.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 4

Urnietako Eusko Abertzaleak: 3  
Urnietako Eh Bildu: 1

En contra: 0

Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Territorio de 13 de septiembre de 2021, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ERABAKI DU:**

**Lehenengoa:**

M. YURRAMENDI 7ko JABEKIDEEi OBRA HANDIRAKO BAIMENA ematea M. Yurramendi 7an igogailu bat jartzeko, 80.477,85 euroko aurrekontuarekin.

**Bigarrena:**

BALDINTZA BEREZIAK

**ACUERDO:**

**Primero:**

Conceder a los COPROPIETARIOS DE M. YURRAMENDI 7 LICENCIA DE OBRA MAYOR, para la instalación de un ascensor en M. Yurramendi 7, por un presupuesto de 80.477,85 euros.

**Segundo:**

CONDICIONES PARTICULARES

## 2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021

Eskailera berritik teilatura irteteko gutxienez 70cmko zabalera duen irteera bat egin beharko da.

**Igogailua jartzeagatik handitzen den eraikigarritasuna ez da konsolidatuta geldituko.**

Obrak baimena jakinarazi eta HAMABI HILABETEKO epearen barruan hasiko dira, eta BI ASTE baino lehenago amaitu. Obrak epe horietan hasi edo amaitu ez badira, emandako baimena luzatzeko eskatu beharko da..

#### Obrak hasi baino lehen:

- Obra zuzendaritza teknikoa izendatu beharko da (arkitektoa eta arkitekto teknikoa).

#### Obrak bukatu eta gero:

- Obra Amaierako Ziurtagiria aurkeztuko du, obra zuzendariak sinatua eta dagokion elkargoak onetsia.  
- Sortutako hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzeko, hondakinak eta eraikuntza materialak sortzen dituen pertsonak amaierako txostena ekarri beharko du, 112/2012 dekretuko III. eranskinarekin bat etorriz.  
Txosten hau derrigorrez aurkeztu behar izango da bermea itzultzeko.

#### **Hirugarrena:**

##### HONDAKINAK

- Espresuki debekatzen da obrako materialak edo zakarrak zuzenean zolan uztea, masak eta mortairuak prestatzea etab.

- Debeekatuta dago obretako zakarrak baimendu gabeko zabortegetan uztea.

- 112/2012 dekretuak araututako obra izanik, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen, eraispenean sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko helburuarekin, hondakin horien kudeaketaren % 120ko bermea jarri beharko da, hau da, 461,74 euro.

Como mínimo habrá que hacer una salida de 70 cm de ancho para salir al tejado desde la escalera nueva.

**El incremento de la edificabilidad debido a la construcción del ascensor, no quedará consolidada.**

Las obras deberán dar comienzo en el plazo de SEIS MESES a partir de la notificación de la licencia y terminar antes de DOCE MESES. Si no hubieran dado comienzo o no se hubieran terminado transcurridos los respectivos plazos, deberá solicitarse una prórroga de la licencia concedida.

#### Antes del comienzo de la obra:

- Deberá nombrar Director de Obras a Técnico competente (Arquitecto y Aparejador).

#### Al finalizar las obras:

- Presentará el Certificado Fin de Obra firmado por el directo de la obra y visado por su Colegio correspondiente.  
- A fin de acreditar la correcta gestión de los residuos generados, la persona productora de los residuos y materiales de construcción deberá aportar un informa final, de acuerdo al anexo III del Decreto 112/2012.  
Será necesario aportar este informe, para que pueda procederse a la devolución de la fianza.

#### **Tercero:**

##### RESIDUOS

- Se prohíbe expresamente depositar materiales de obra o escombros, directamente en el pavimento, así como preparar masas, morteros, etc.

- Se prohíbe depositar los escombros procedentes de las obras en vertederos no autorizados.

- Al tratarse de una obra regulada por el Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, con el fin de garantizar la adecuada gestión de los residuos generados en la demolición se deberá imponer una fianza del 120% del coste de la gestión de dichos residuos, es decir, 461,74 euros.

## 2021EKO IRAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2021

#### Laugarrena:

##### BALDINTZA OROKORRAK

- Baimen honek bakar-bakarrik balio du eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan aurrekontu eta guzti adierazitako obrak egiteko.

- Espazio publiko urbanizatueta eta eraikinetara iristeko eta horiek erabiltzeko ahalmen urritasuna duten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko eta bereizkeria saihesteko oinarriko baldintzak onartzen dituen apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa bete beharko dute, baita irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/97 Legean eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan xedatutakoa ere, hiri inguruen, guneko publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak.

#### Bostgarrena:

